



EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

Helburu Orokorra:

Kultura honetako nahiz beste kultura batzuetako emakumeen jabekuntza sustatzea. Gizartean eta politikan emakumeen parte hartzea sendoagotzeko bitartekoak eta prozesuak sistematizatu.

I. ARDATZA: PRESTAKUNTZA

➤ 1.1 Helburu orokorra:

➤ *Udalerriko emakumeek gizartean eta politikan parte har dezatela sustatzea.*

➤ Helburu Zehatzak:

- a) Emakumeak elkarrekin batzeko mugimendua indartzea, ikuspegi feministatik prestakuntza, eztabaida eta gogoeta bultzatuta.
- b) Emakumeek parte hartzeko organoak sustatzea edo/eta finkatzea.
- c) Emakumeei laguntzea euren bazterkeria-egoeraz jabetu daitezen.
- d) Jabekuntzako Eskola emakumeen partaidetzaren ardatz bihurtzea, bilgune horretan emakumeak parte har dezaten, elkarte batekoak izan ala ez.

II. ARDATZA: SISTEMATIZAZIOA

➤ 2.1 Helburu Orokorra:

Prozesua aztertu eta sistematizatuko da, emakumeen parte hartzea gizartean eta politikan sustatzearen abian jarritako bitartekoak, behar izanez gero, balioztatzeko.

➤ Helburu Zehatzak:

- a) Prestakuntzaren eta jarduera osagarrien eragina neurtzea, aurreikusitako helburuekin alderatuta.
- b) Burujabetza Eskolako emakumeek zer nolako presentzia daukaten udalerrian parte hartzeko dauden gune ezberdinetan neurtzea.
- c) Jardunbide egokiak ondorioztatzea eta hedatzea

III. ARDATZA: EMAKUMEEN EGOERA MUNDUAN

➤ 3.1 Helburu orokorra:

Emakumeek munduan jasaten dituzten bazterkeria-egoeren berri gehiago zabaltzea eta kolektibo moduan horietaz jabetzea.

➤ Helburu Zehatzak:

- a) Mainstreaming izeneko estrategia bultzatzea, arlo honi uztartutako beste arlo batzuekin lankidetzan jardunda.
- b) Beste kultura batzuetako emakumeak burujabetzeko prozesuen berri edukitzea eta horietan laguntzea.
- c) Beste kultura batzuetako emakumeekin hartu-eman eta elkartasun sareak sortzea.